

## Bueltan da Don Inorrez

Bide Ertzean taldeak atsedenaldi mugagabe bat iragarri zuen 2016ko abenduan. Taldeko kantaria bakarlari gisa ari da ordutik hona. Don Inorrez hortaz, Imanol Ubedaren alter ego bat da. Ezizen artistiko bat.

2018ko udaberrian *Mugiro bila* izeneko diskoa plazaratu zuen. Proiektu berriaren lehena. Paco Loco ekoizle ezagunarekin batera grabatu zuen El Puerto de Santa Maríán (Cádiz). Bide Ertzeanen kutsua albo batera utzi gabe, Imanol Ubedak Gorka Urbizurekin batera osatutako Peiremans+ talde paraleloaren power pop estiloa da nagusi.

2019ko udazkenean lan berri bat plazaratu du Don Inorrez taldeak: *Dardara hura* izeneko binilozko singlea. Lan hau ere Paco Loco ekoizlearekin batera ondu dute baina beste estilo bat nagusi da kantu berri hauetan. *New americana*-tik hurbilago daude. Pello Lizarralde idazlearen letrak daude kantu berrien oinarrian. Azala José Ignacio Agorreta margolariak egin du.

Lan kolektibo honen emaitza ospatzeko, bira berri bati ekin dio Don Inorrezek. Aurreko biran bezalaxe, lau izango dira oholtzara igoko diren musikariak: Imanol Ubedarekin batera Karlos Arancegui baterijolea, Fernando Neira baxujolea eta Rubén Caballero guitarrajolea arituko dira zuzenean.

## Don Inorrez vuelve a la carga

A finales del año 2016, el grupo tolosarra Bide Ertzean anunció un largo descanso. En ese instante nació Don Inorrez, proyecto en solitario de Imanol Ubeda.

Don Inorrez debutó en la primavera del 2018 con un disco titulado *Mugiro bila*. Para registrar sus primeros temas viajaron hasta El Puerto de Santa María (Cádiz). Allá, de la mano del conocido productor *indie* Paco Loco, dieron forma al nuevo proyecto. Don Inorrez mantiene el pulso musical de Bide Ertzean pero está más cerca del power pop de Peiremans+ (proyecto paralelo de Imanol Ubeda y Gorka Urbizu BTX).

Don Inorrez acaba de publicar en otoño un nuevo trabajo discográfico titulado *Dardara hura*. Un single-vinilo de 7 pulgadas. Los nuevos temas están más cerca de lo que se conoce como *new americana*. Las letras escritas por el escritor Pello Lizarralde son la base de estos temas. Y la portada es obra del pintor navarro José Ignacio Agorreta.

Coincidiendo con el nuevo lanzamiento discográfico, Don Inorrez ha dado inicio a una nueva gira. En esta nueva andadura actuarán los mismos músicos que participaron en la gira *Mugiro bila*: Karlos Arancegui a la batería, Fernando Neira al bajo y Rubén Caballero a la guitarra, Imanol Ubeda voz y guitarra.